


Gizajo baten

EGUNKARIA

TXANGO ZOROA



ALBERDANIA


Gizajo baten

EGUNKARIA

TXANGO ZOROA



ALBERDANIA



JEFF KINNEY-REN BESTE LIBURUAK

Gizajo baten egunkaria (*Greg Heffley-ren egunerokoa*)

Gizajo baten egunkaria: *Rodrick-en legea*

Gizajo baten egunkaria: *Hauxe besterik ez nuen behar*

Gizajo baten egunkaria: *Egun zakurrak*

Gizajo baten egunkaria: *Egia gordina*

Gizajo baten egunkaria: *Etxean itxita*

Gizajo baten egunkaria: *Bikotean hiru*

Gizajo baten egunkaria: *Suerte txarra*

Gizajo baten egunkaria (Greg Heffley-ren egunerokoa)

Gizajo baten egunkaria: Rodrick-en legea

Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar

Gizajo baten egunkaria: Egun zakurrak

Gizajo baten egunkaria: *Egia gordina*


Gizajo baten egunkaria: Etxean itxita

Gizajo baten egunkaria: Bikotean hiru

Gizajo baten egunkaria: Suerte txarra

ITZULTZAILEA:

Miren Arratibel




Gizajo baten

EGUNKARIA

9

TXANGO ZOROA

Jeff Kinney



ARGITARATZAILEAREN OHARRA: Fikzio lan bat da hau. Izenak, pertsonaiak, lekuak eta gertakariak egilearen irudimenaren emaitza dira, eta fikzioaren legeen arabera erabili daude. Beraz, antzekotasunik baldin badago benetako pertsonekin (hilak zein biziak), merkataritza guneeekin, leku edo gertakariekin, halabeharri zor zaio erabat.

Jatorrizko izenburua:
Diary of a Wimpy Kid. The Long Haul

Wimpy Kid testu eta ilustrazioen copyright-a © 2014, Wimpy Kid, Inc.
DIARY OF A WIMPY KID®, WIMPY KID™ eta Greg Heffley design™
Wimpy Kid, Inc-en marka erregistratuak dira
Eskubide guztiak erresalbatuta.

FLAT STANLEY® erabiltzeko baimena Richard C. Brownen (Jeff Brown izenez ere ezagutzen dena) oinordeek lagatakoa da, Duncan Brownen onurarako.
Flat Stanleyren liburuen argitaratzailea HarperCollins Publishers da.

CHOOSE YOUR OWN ADVENTURE® erabili da Chooseco LLC-ren baimenez.

Ingeleseztik lehen aldiz, 2015ean,
Amulet Books-ek eta Harry N. Abrams Inc.-ek argitaratua, New Yorken.
(Herrialde guztietarako eskubide guztiak erresalbatuta Harry N. Abrams, Inc.)

© Itzulpenarena: 2017, Miren Arratibel
© Argitaraldi honena: 2017, ALBERDANIA, S.L.
Istillaga, 2 behe C, 20304 Irun
Tf: + 34 943 63 28 14
alberdania@alberdania.net
www.alberdania.net

ISBN: 978-84-9868-396-7
Legezko Gordailua: SS-1271/2017

PRANAV-ENTZAT

EKAINA

Ostirala

Zerbait ikasi badut nire haurtzaroan, hori da ez duzula BATERE kontrolik zure bizitzaren gainean.

Ikasturtea amaituta ere, ez daukat nahi dudana EGITERIK, ezta egon nahi dudan tokian EGOTERIK ere. Aire girotua piztuta zegoen eta telebistaren urrutiko aginteak bateria kargatuta: udako opor lasai batzuk igarotzeko dena prest zegoela zirudien.

Baina, halako batean, begira ZER gertatu den:



Ez da LEHEN aldia amak bidaia egingo dugula
esaten diguna, hola, aurrez abisurik eman gabe.
Iaz ere, oporren lehen egunean jakinarazi zigun
ipar aldera joango ginela egun batzuetarako, izeba
Lorettari bere egoitzan bisita egitera.

Ez zitzaidan iruditu uda hasteko modurik
dibertigarriena, baina tira. Izeba Lorettari bisita
egitera joan ginenean, haren gelakideak harrapatu
ninduen, eta ez ninduen askatu harik eta zaintzaile
batek txokolatezko madalena bat eman zion arte.



Baina ama adarra jotzen ari zitzagun kontu
harekin: hurrengo eguneko goizean esan zigun
BENETAN nora gindoazen.




Rodrick anaia eta biok pozarren jarri ginen,
sinetsita geundelako udako oporretako lehen astea
zahar-etxe bateko sabaian txingotan jolasean
igaro beharko genuela.

Baina Manny anaia txikia SUTAN jarri zen
plana aldatu zela jakin zuenean. Amak hainbeste
hitz egin zion izeba Lorettari buruz, IRRIKAZ
baitzegoen harengana joateko.



Azkenean, ATZERATU egin behar izan genuen
Disneylandeko bidaia, izeba Lorettari bisita egitera
joateko. HORREN ondoren, pentsatzekoa zen
amak ikasia izango zuela ezusteko bidaien ikasgaia.



ONDOTXO dakit nik nondik atera den autoa
hartu eta txangoa egiteko ideia; izan ere, gaurko
postarekin iritsi da 'Gozatu Familiartean' aldizkaria.

Egingo nuke familiartean egiten ditugun gauzen
%90 amak aldizkari horretatik ateratzen dituen
ideietatik datorrela. Eta, azken zenbakia ikusita,
berehala ohartu naiz ama martxan jarriko zela.




Gozatu Familiartean aldizkaria ikusi izan dut, eta, aitortu beharra daukat, argazkiak ikusita, oso gauza dibertigarriak proposatzen dituztela.



Baina GURE familian oker egiten dugu zerbait,
gauzak ez baitira inoiz ateratzen aldizkarian bezala.




Ama ez da amore ematen duten horietakoa, ordea.
Esan digu txango txundigarria izango dela eta
autoan elkarrekin luzaro egotea esperientzia "zinez
aberasgarria" izango dela familia osoarentzat.




Saiatu naiz amarekin hitz egiten, gauza
NORMALEN BAT egiten uzteko, adibidez,
egun-pasa ur parke batean; baina ez du
halakorik entzun ere egin nahi izan.

Azaldu digu bidaia honen helburua dela sekula lehenago egin gabeko gauzak egitea eta "benetako" esperientziak bizitzea.

Pentsatzen dut amak aita aurrez konbentzitura izango zuela txangoa egiteko. Baina oker nengilen, itxuraz: iruditut zait, aita lanetik etxera itzuli denean, gu bezain harrituta gelditu dela.




Aitak amari esan dio ez dela garai ona lana huts egiteko, eta ez zituela opor egunak erabili nahi. EZINBESTEKOA ez bazen. Baina amak esan dio ez dagoela familiarekin egotea baino gauza garrantzizkoagorik.



Orduan, aitak amari esan dio irrikaz zegoela
asteburuan TXALUPAN itsasora ateratzeko, eta
ezingo zuela atera autoz bidaia egiten bagenuen.


Gurasoak ez dira gaizki moldatzen, oro har, baina
bada beraien artean beti liskarra sortzen duen
gauza bat: aitaren txalupa.

Orain urte batzuk, amak esnea erostera bidali zuen
aita; aita esne bila zihoala, itsasontzi bat ikusi
zuen salgai baten baten lorategian, eta, begi itxi-
ireki batean, gure etxeko sarreran zen itsasontzia.



Ama sutan jarri zen aitak ez ziolako galdetu
eta lan handia ematen duelako itsasontzi bat
mantentzeak.


Baina aitag aitortu zion bere aspaldiko ametsa zela
itsasontzi bat edukitzea eta elkarrekin nabigatzen
igaroko genituela asteburuak, familiaratean.



Eta, halaxe, aitag txalupa LORTU zuen, eta
bere txaluparekin poz-pezik zegoela ematen zuen.
Baina luze gabe okertzen hasi ziren gauzak.


Handik egun batzuetara, auzo elkartekoek atea jo
ziguten.

Esan zuten gure auzuneko arauak debekatzen zutela etxe parean itsasontzi bat aparkatuta edukitzea, eta atzeko aldera eraman behar izan zuten aita berea.




Eta atzeko patioan eman zuten txalupak uda osoa, aita oso lanpetuta zegoelako eta hura erabiltzeko astirik ez zuelako. Udazkena iritsi zenean, aitaren lankide batek ohartarazi zion itsasontzia negutegi batean gorde beharko zuela, hotzetik babesteko.

Orduan jakin zuten aita itsasontzia negutegian gordetzea garestiagoa zela itsasontzia EROSTEA baino, eta arriskua bere gain hartzea erabaki zuten. Eta, jakina, tenperatura zerotik behera jaitsi eta izotza egiten hasi zenean, pitzadura handi bat agertu zitzaion kroskoan txalupari.



Elurteak hasi zirenean, atzeko terrazaren azpian babestu zuen itsasontzia, eta hantxe geldi egon zen negu osoan. Udaberri aldera, etxeko traste zaharrak han gordetzen hasi zen ama.




Eta, hurrengo udan, aitak itsasontzia konpontzea erabaki zuen.

Baina txalupa terrazaren azpitik ateratzera joan zenean, konturatu zen mapatxe familia bat bizi zela gure garbigailu zaharrean.



Aitak izurri-garbitzaile bati deitu zion mapatxeak garbi zitzan, baina oso garestia zen, eta arazoa bere kabuz konpontzea erabaki zuen.

Mannyk garbigailu zaharrean mapatxe kume batzuk zeudela jakin zuenean, ordea, amak esku hartu behar izan zuen.



Harrezkero, hantxe da txalupa. Aspaldi ez dut entzuten terraza azpian lasterketa hotsik eta pentsatzen dut mapatxeek alde egingo zutela honezkero.

Gaur, amak aitari esan dio uda osoa zuela aurretik itsasontzian nabigatzeko, eta aitak amore eman behar izan du.

Eta, gero, amak esan digu bihar goiz-goiz aterako ginela, eta bidaiarako maletak prestatzen hasi beharko genuela. Ohartarazi digu, halere, "behar-beharrezko" gauzak besterik ez hartzeko, gure monobolumen txikian dena sartu ahal izateko.